Emakumeen Etxeak indartzeko
diseinu-fasearen 2. emaitza

# Emakumeen Etxeak indartzeko lurralde-mailako egitasmoa irudikatzen

Donostian, 2021eko uztailaren 7an

GIPUZKOA
ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



# AURKIBIDEA

1. Testuingurua

2. Diseinu fasean identifikatutako erronkak

3. Egitasmo esperimentalaren helburuak

4. Lan-ildoak

5. Egitasmoa garatzeko egiturak

6. Esperotako emaitzak

# 1. TESTUINGURUA



# 1. TESTUINGURUA

## GIPUZKOA **ENTZULE**

GIPUZKOA **TALDEAN**

Gure lurraldearen erronkak eta beharrak identifikatzeko, elkarrekin hitz eginez. Entzuteko mekanismoak:

- **Herritarren proiektuak**
- **Etorkizuna Eraikiz Think Tank-a**
- **Aurrekontu irekiak**

## GIPUZKOA **ESPERIMENTATZAILE**

GIPUZKOA **LAB**

Lurraldeak dituen erronkei irtenbideak bilatzeko eta esperimentatzeko guztion artean. Gure esperimentazio mekanismoa:

- **Proiektu esperimentalak**

## ERREFERENTZIA ZENTROAK

Gipuzkoarentzat estrategikoak diren proiektu sozial eta ekonomikoei modu kooperatiboan egiten diete aurre.

- **Erreferentzia zentroak**

## Non kokatzen da:

- Etorkizuna Eraikiz
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berdintasunerako III. Plana

# 1. TESTUINGURUA: EGITASMOAREN HELBURU OROKORRAK

**Gipuzkoako udalerrietako Emakumeen Etxeak indartzea, indarkeria matxistaren kontrako eta berdintasunerako ekipamendu estrategiko gisa, lurralde-mailako eredua garatuz.**

**Zehazki:**

1. **Gipuzkoa-mailan garatutako eredua aztertzea eta biltzea, eredu propioa indartzeko.**

2. **Indarkeria matxistari ahalduntzearen eta erreparazioaren ikuspegitik aurre egiteko Emakumeen Etxeen eta Gizarte Politiken arteko elkarlanean eta koherentzian sakontzea, eskaintza osoa hobetzeko.**

3. **Emakumeen Etxeen indarguneak, zailtasunak, aukerak eta erronkak identifikatu eta horiei lurralde-mailan elkarrekin erantzuteko aukerak aztertzea, etengabeko berrikuntzaren ikuspegiarekin lan eginez.**

# 1. TESTUINGURUA: EGITASMOAREN 3 PRINTZIPIOAK

## Etorkizuna Eraikiz



# 1. TESTUINGURUA: EGITASMO OSOAREN FASEAK



# 1. TESTUINGURUA: DISEINU-FASEKO PARTAIDEAK

## Partaideak




EMAKUMEEN ETXEAK DITUZTEN UDALERRIAK

- Arrasate (2003)
- Eibar (2004)
- Donostia (2010)
- Azpeitia (2011)
- Hernani (2013)
- Errenteri (2019)
- Urola-Garaia (2019)
- Zarautz (2020)
- Zumaia (2021)

14 udalerri

EMAKUMEEN ETXEAK SORTZEKO PARTAIDETZA-PROZESUAK BURUTU DITUZTEN UDALERRIAK

- Tolosaldea
- Irun
- Elgoibar
- Usurbil
- Astigarraga

# 2. DISEINU FASEAN IDENTIFIKATUTAKO ERRONKAK



# 2. DISEINU FASEAN IDENTIFIKATUTAKO ERRONKAK

1. **Emakumeen Etxeen ekarpena aitortu eta balioestea, Gipuzkoan garatutako eredua sendotuz.**
2. **Emakumeen Etxeak indartzea:**
   a) **Gobernantza kolaboratiboa:**
      i. **Publiko-komunitario elkarlana sendotu.**
      ii. Emakumeen **partaidetza areagotu.**
   b) **Ahalduntze eta erreparaziorako ekipamendu-izaera mantendu.**
   c) **Irismena handitzea, aniztasunean sakonduz.**
3. **Emakumeen Etxeen lana eta ekarpena sistematizatzea.**
4. **Indarkeria matxistari aurre egiteko politika sozialekin koordinazioa eta osagarritasuna hobetzea, ahalduntzearen eta erreparazioaren ikuspegitik.**
5. **Aipatutako erronkei aurre egiteko beharrezko baliabideak bideratzea (Etxeen koordinatzaileak, aurrekontuak, espazioak…).**

# 3. EGITASMO ESPERIMENTALAREN HELBURUAK



# 3. EGITASMO ESPERIMENTALAREN HELBURUAK

1. **Emakumeen Etxeen ekarpena aitortu eta balioestea, Gipuzkoan garatutako eredua sendotuz.**

2. **Emakumeen Etxeak indartzea:**
   a) **Gobernantza kolaboratiboa:**
      i. **Publiko-komunitario elkarlana sendotu.**
      ii. Emakumeen **partaidetza areagotu.**
   b) **Ahalduntze eta erreparaziorako ekipamendu-izaera mantendu.**
   c) **Irismena handitzea, aniztasunean sakonduz.**

3. **Emakumeen Etxeen lana eta ekarpena sistematizatzea.**

4. **Indarkeria matxistari aurre egiteko politika sozialekin koordinazioa eta osagarritasuna hobetzea, ahalduntzearen eta erreparazioaren ikuspegitik.**

**5. Aipatutako erronkei aurre egiteko beharrezko baliabideak bideratzea (Etxeen koordinatzaileak, aurrekontuak, espazioak…)*.**

** Egitasmoaren helburu zuzena ez izan arren, zeharkako helburu bat izango da, hots, egitasmoak ere balio beharko luke helburu hau lortzeko baldintzak sortzeko.*

# 4. LAN-ILDOAK



# 4. LAN-ILDOAK

| | |
|---|---|
| 1 | Akademiarekin elkarlana |
| 2 | E. Etxeen Laborategia |
| 3 | Sistematizazioa |
| 4 | Indarkeria matxista |

L A B O R A T E G I A

# 1. LAN-ILDOA: AKADEMIAREKIN ELKARLANA

| | |
|---|---|
| **Zein erronkari erantzuten dio?** | 1. Emakumeen etxeen lana eta ekarpena aitortu eta balioestea.<br>2. Emakumeen etxeak indartzea; Gipuzkoako eredua sendotzea.<br>4. Indarkeria matxistari aurre egiteko politika sozialekin koordinazioa eta osagarritasuna hobetzea. |
| **Helburu zehatzak** | ✓ Emakumeen Etxeen lana eta ekarpena ezagutu, aitortu, balioetsi eta ikaspenak atera.<br>✓ Emakumeen Etxeak indartzea, partaidetzan oinarritutako beren eredu propioa sendotuz.<br>✓ Indarkeria matxistari aurre egiteko Gizarte Politikekin garatutako koordinazio-mota ezberdinak ezagutzea. |
| **Nola garatuko litzateke?** | ✓ Hemengoari begira: Gipuzkoara begira nahiz Hego Euskal Herrira begira<br>✓ Nazioartera begira |
| **Nork garatuko luke?** | ✓ Akademiak |

# 2. LAN-ILDOA: ETXEEN BERRIKUNTZA LABORATEGIA

| | |
|---|---|
| **Zein erronkari erantzuten dio?** | 2. Etxeak indartzea; Gipuzkoako eredua sendotzea.<br><br>5. Baliabideak hobetzea. |
| **Helburu zehatza** | ✓ Emakumeen Etxeak indartzea, elkarrekin eraginez. |
| **Nola garatuko litzateke?** | ✓ Berrikuntza laborategia: gaur egungo behar, arazo eta erronken inguruan **elkarrekin hausnartzeko, elkarrengandik ikasteko eta alderdi horiei modu koordinatuan erantzuteko bideak aztertzeko.** Ikuspegi estrategikoarekin lan egingo du. |
| **Nork garatuko luke?** | ✓ Emakumeen Etxeen Berrikuntza Laborategia |

# 3. LAN-ILDOA: SISTEMATIZAZIOA

| | |
|---|---|
| **Zein erronkari erantzuten dio?** | 3. Sistematizazioa |
| **Helburu zehatza** | ✓ Emakumeen Etxeek egiten duten lana eta ekarpena neurtu eta ebaluatzea. |
| **Nola garatuko litzateke?** | ✓ Zer datu bildu zehaztu eta, datuak biltzeko Etxeentzako tresna erabilerraz bat sortu, norberaren neurrira egokitu daitekeena. |
| **Nork garatuko luke?** | ✓ Emakumeen Etxeen Berrikuntza Laborategiak, kanpo-aholkularitzaren laguntzaz |

# 4. LAN-ILDOA: INDARKERIA MATXISTA

| | |
|---|---|
| **Zein erronkari erantzuten dio?** | 4. Indarkeria matxistari aurre egiteko politika sozialekin koordinazioa eta osagarritasuna hobetzea. |
| **Helburu zehatza** | ✓ Etxeen rola eta ekarpena aztertu eta, Gizarte Zerbitzuekin koordinazioa eta osagarritasuna hobetzea. |
| **Nola garatuko litzateke?** | ✓ Ikerketa: Gaur egungo prozeduren azterketa<br>✓ Esperimentazioa: Prozedura hobetzeko ekimen pilotua(k) |
| **Nork garatuko luke?** | ✓ Akademia/kanpo-aholkularitza espezializatua<br>✓ Indarkeria matxistan espezializatutako aholkularitza baten laguntzaz<br>✓ Bi udalerritan (bat handia eta bestea ertain-txikia) |

# 5. EGITASMOA GARATZEKO EGITURAK



# 5. EGITURAK




**Egitasmoan inplikatutako guztiak bilduko dituen jardunaldi publiko bat**

# 5. EGITURAK

Emakumeen Etxeen Berrikuntzarako Laboratehia

**Osaera:** Emakumeen Etxeak dituzten udalerrietako berdintasun-teknikari eta dinamizatzaileak, Aldundiko Berdintasun Organoko teknikariarekin batera.

**Funtzio nagusia:** Etxeen gaur egungo behar, arazo eta erronka nagusien inguruan gogoeta egin, elkarrengandik ikasi eta horiei elkarrekin erantzuteko bideak aztertuko ditu, ikuspegi estrategikoz.

**2. Funtzioa: Segimendu orokorra:** Egitasmo guztiaren ikuspegia izango du. Lan-ildoen nondik norakoak kontrastatu eta segimendua egiteko gunea izango da.

**Maiztasuna:** 3 hilean behin elkartuko da eta 5 ordu inguruko lan-saioak egingo ditu. Urte eta erdian 6 lan-saio egitea aurreikusi dugu.

# 6. ESPEROTAKO EMAITZAK



# 6. ESPEROTAKO EMAITZAK

1. Akademiaren ondorio-txostenak
2. Sistematizazio-tresna
3. Indarkeria matxista: egitasmo pilotuen ikaspenak eta orientabideak
4. Jardunaldia

GIPUZKOA
ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

www.elhuyar.eus